

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

Tokiko Gobernu Batzarraren 2018ko martxoaren 2ko erabakia, Kontratazio Mahaiko kideak izendatzeari buruzkoa

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 326. artikulua xedatzen duenaren arabera, kontratazio mahaiaren berezko zeregina da kontratazio-organoari laguntzea kontratuak esleitzean, prozedura irekietan, ireki laburtuetan, murriztuetan, lehia-elkarrizketa bidezkoetan, berrikuntzarako elkarteetan eta lege horretako 168. artikuluan aipatzen diren publizitadedun prozedura negoziatuetan. Orobat ezartzen du presidenteak, ki-deek (erregelamendu bidez zehaztuko da zenbat izango diren) eta idazkari batek osatuko dutela kontratazio-mahaia.

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 127. artikulua —Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen 57/2003 Legean emandako idazkuntzan— Tokiko Gobernu Batzarrari aitortzen dizkio kontratazio-eskumenak. Beraz, hori da kontratazio-organoa, artikulua beraren 2. paragrafoaren arabera eskumen horiek eskuordetzeko aukera gorabehera.

Biztanle kopuru handia duten udalerrietan Tokiko Gobernu Batzarrak ditu kontratazioaren alorreko eskumenak, kontratuaren zenbatekoa edo iraupena edozein izanik ere, Sektore Publiko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarriak —“Toki-erakundeetarako kontratazio arau bereziak”— 4. paragrafoan xedatutakoaren ildotik. 7. paragrafoaren arabera, berriz, kontratazio-mahaiko buru korporazioko kide bat edo funtzionario bat izango da; mahaikide izango dira korporazioko idazkaria edo, hala behar duenean, korporazioari aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna duen organoaren titularra, eta kontu-hartzailea, baita kontratazio-organoak izendatutako beste batzuk ere, funtzionarioen, lan-kontratuko langileen edo zinegotzien artean aukeratuta; kopurua, guztira, ez da hirutik beherakoa izango. Kontratazio Mahaian dauden hautetsiak ezingo dira kide guztien herena baino gehiago izan. Mahaiaren idazkaria korporazioko funtzionario bat izango da.

Horrenbestez, erabaki-proposamen hau egiten dio alkate lehendakariak Tokiko Gobernu Batzarrari,

Erabaki-proposamena

Lehena. Honako hauek izendatzea Kontratazio Mahaiko kide:

Lehendakaria: Iñaki Prusilla Muñoz (EAJ-PNV).

Hura kanpoan edo gaixo baldin badago, Peio López de Munain López de Luzuriagak (PSE-EE) ordeztuko du.

Idazkaria: Cristina Martínez de Lagos Beitia; hura ez badago, María Jesús Sáenz Medranok ordeztuko du.

Kideak: Manuel Uriarte Azcárraga (Partido Popular).

Ordezkoak: Antxon Belakortu Preciado (EH Bildu), Juan Antonio Cerezuela (Podemos) eta Óscar Fernández Martín (Irabazi).

Loreto Abaigar Echegoyen, Aholkularitza Juridikoaren zuzendaria; hura ez badago, Jon Kepa Zarrabe Garcíaak ordeztuko du.

Alfredo Barrio Gil, kontu-hartzaile nagusia; hura ez badago, Josu Estébanez Nogalesek ordeztuko du.

María Jesús Sáenz Medrano, Kontratazio Zerbitzuko burua; hura ez badago, Manuel Pérez de Lazarraga Villanuevak ordeztuko du.

Bigarrena. Dekretu hau 2018ko martxoaren 9an jarriko da indarrean, azaroaren 8ko 9/2017 indarrean sartzearekin bat etorritik, ALHAOn eta Udalaren web-gunean zein egunetan argitaratzen den gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko martxoaren 6an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE